

# Lingolang

Guraso agurgarria;

Gutun honen bitartez, Topaguneak, Euskara Elkarten Federazioak, eskoletara begira duen egitasmo batean parte hartzea eskatzera gatoz, Gasteizko udalarekin eta Zabalgana eskolarekin elkarlanean.

Gure herrietako hizkuntza eta kultura aniztasuna gure eskoletan ere islatzen da. Hizkuntza desberdinetako hiztunak daude bertan eta eskolak bere baitan duen aberastasun hau azalarazi nahi dugu eraikiko dugun webgune baten bitartez.

Webgunearen helburua, eskolan hitz egiten diren hizkuntzei leku bat egitea da, ikasle, irakasle eta guraso guztiek izan dezaten hizkuntza bakoitza eta guztien berri: non hitz egiten den, zein alfabeto erabiltzen duten, etab.

Hizkuntza bakoitzeko oinarrizko hitz eta esaldiak ere jaso nahi ditugu, hizkuntza horietako hiztunen ahotik, zuen seme-alaben ahotik hain zuzen. Guzti hau bideo bitartez egiteko asmoa daukagu. Grabaketak ikastetxean bertan edo kultur etxean egingo dira egun bakarrean, haur bakoitzarekin nahikoa baita 10-15 minutuko tartea.

Zuen seme/alaba (euskaraz gain) beste hizkuntza baten hiztuna izanik, eskolan badauka beste guztiekin zer konpartitu, zer erakutsi eta berea den horri, eskolan bertan, lekutxo bat egiteko aukera.

Hau guztia ahalbidetzeko, zuen baimenen beharra daukagu, adin txikikoen babeserako 1/1996 lege organikoaren 4.artikuluaren arabera, adin txikikoen irudiak erabili ahal izateko gurasoen baimena ezinbestekoa delako. Egitasmoan parte hartzea begi onez hartuz gero, gutun honekin batera doan inprimakia betetzea eskatzen dizuegu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte kontaktuan gurekin eta gogoz emango dizuegu guztiaren berri.

Mila esker eta ondo izan!!!



Itsaso Lekuona Legorburu

[itsaso@topagunea.org](mailto:itsaso@topagunea.org)

Tel: 661.746.256

## Gurasoen baimena

Nik, ..... (guraso edo tutorearen izen abizenak), ..... NAN zenbakidunak, ..... (gaztearen izen abizenak) –ren aita/ama/tutoreak, Topagunea, Euskara Elkartearen Federazioak, eskolatako hizkuntza aniztasuna azalarazteko sortuko duen “lingolang” webgunerako bideo grabaketetan parte hartzeko eta grabaketak webgunean soilik zintzilikatzeko baimena ematen diot, beti ere irabazi asmorik gabe (LOPD 15/1999 legeak dionaren arabera).

Harremanetarako telefono zenbakia: .....

Eguna eta sinadura



Itsaso Lekuona Legorburu

[itsaso@topagunea.org](mailto:itsaso@topagunea.org)

Tel: 661.746.256